

1- Harilko

Zoro bat harilko (artilezko pilota) baten korapiloen askatzen ari da. Beste zoro bat heldu zaio eta erraten dio:

- Zer ari zara?
- Artilezko pilota honen puntta xerkatzen.
- Ez du balio, moztua diot!

2- Begi lagunak

Begi lagunak ditut baina ez dut ikusten, nor naiz?

- ...
- Sudurra!

3- Agiantza bat bakarrik haizu

Euskaldun bat Miarritzen ibiltzen da eta zerbait oinez jotzen du.

Lanpa magiko bat da. Torratzen du eta jeinu bat (iratxo bat) ateratzen zaio.

Jeinua: -Milesker, zuri esker atera naiz! Agiantza bat haizu duzu. Zer nahi zenuke?

Euskalduna: - Nahi nuke Miarritze eta Miamiren artean zubi bat izatea!

Jeinua: - Zerbait posible dena, alo!

Euskalduna: -Orduan, nahi nuke ederra eta abila izan!

Jeinua: - Errazu, zubi horrek zenbat bide behar lituzke, bi ala lau?

4- Lumatxa

Egun batez mutiko batek galdegiten dio bere amari:

- Ama, zergatik zure pijama beti lumatxaren azpian ezartzen duzu?
- Ez zimurtzeko maitea!
- Orduan zergatik ez duzu amatxi lumatxaren azpian ezartzen?

5- Jesus

Toto ostatu batean sartzen eta dute bat eskatzen du.

- Dute bat otoi!

Ostalariak erantzuten dio:

- Ez dugu gehiago!

Totok berriz:

- Dute bat otoi!

Ostalaria kexatzen zaio:

-Erran dizut ez dela gehiago! Berriz galdegiten baduzu, Jesus bezala ezartzen zaitut, murruan itzaturik!

Baina Totok jarraitzen du:

- Dute bat, otoi!

Orduan gizona bere gontzetarik ateratzen da, eta gure Toto Jesusen ondoan itzaten du!

Orduan Totok galdegiten dio Jesusi:

- Zuk ere dute bat nahi zenuen!

6- Haurra

Bi emazte mintzatzen dira beren hurrez.

- Bada 3 hiru hilabete ene semea ibiltzen dela.
- Ah bai! Orduan urrun izan behar da orain!

7- Deus egin

- Irakasleak zigortu nau, alta ez nuen deusik egin!
- Harrigarria hori! Ez zenuen deusik egin?
- Ez, ez nituen etxeko-lanak egin!

8- Jendetasun ikasgaia

Ama:- Beha hadi hona Patxi! Hire amatxiren oina lehertzen baldin baduk, "barkatu" erraten diok zintzoki! Eta berdin, amatxik 2 euro emanen dizkik barkamenak eskatzeagatik! Zer egiten duk orduan Patxi?

- Beste oina lehertzen diot!

9- Elefante

- Zergatik elefante batek batek bere azazkalak gorriz tindatzen ditu?
- ...
- Gereziondo baten gainean gordetzeko!

10- Erreka

Bi lagun elkarri mintzo dira bakoitza erreka baten alde batetarik.

- Nola egiten da bestaldera joateko?
- Jada beste aldean zara!

11- Zortzi

Zero batek zortzi bat topatzen du:

- A, gerriko bat ezarri duzu?

12- Loreontzi

Patxik galdegiten dio aitari:

- Haizu da besteen gainean orroaz aritzea?
- Ez, ez da haizu ene Patxi maitea!
- A, beharrik! Artetik errateko Aita, Aitatxiren txinatar loreontzia hautsi dut goizean!